ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2020IPLE0005**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO OHIKO BILKURA**

2020-07-28ko UDALEKO OHIKO BILKURA

Albizturren, 2020ko uztailaren 28an, arratsaldeko 20:00tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitz Ezeiza Artola
- Aingeru Galarraga Barandiaran

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Mikel Galarza Arrue
- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Unai Dorronsoro Olarra

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. 2019KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA
4. HILERRIKO PROIEKTUA
5. TXAKURREN BANDOA
6. HARROBIKO LEHERKETAK
7. ESTRAESKOLARREN ITZULKETA
8. GARRO BASERRIA
9. GALTZAUNDIREN ESKAERA
10. ORAIN ARDURA MOZIOA
11. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2020-05-26 eta 2020-06-15eko aktak aho batez onartu dira.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2020ko 45 eta 72 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. 2019KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA

Kontuan harturik jende aurrean egon den epean ez dela inolako alegaziorik izan, Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2019ko kontu orokorra onartzea.

Bigarrena.- TVCP/HKEE-ra bidaltzea.

4. HILERRIKO PROIEKTUA

Covid-19aren krisiak eragin duen sarrera murrizketaren ondorioz (Fondo Forala %20 gutxitu du Gipuzkoako Aldundiak), hilerriko hasierako proiektua aldatzea erabaki da.

Kolunbarioak eraikiko dira errautsak edo hezurrak bertan sartu ahal izateko.

Hasiera batean nitxoetan 10 urte baino gehiago daramaten gorpuak ateratzeko aukeraz hitz egin zen, baina egokiago ikusten da oraingoz 15 urte daramatenak ateratzea (2005 urte arterakoak).

Modu honetan 12 nitxo libratuko lirateke eta familiei aukera emango zaie hezurrak kolunbarioan edo hezurgeti komunean sartzeko.

5. TXAKURREN BANDOA

Maiatzeko Osoko Bilkuran txakurrei buruzko bandoa zabaltzea adostu zen, eta bando horrekin loturik Iraitz Ezeiza Barandiaranek idatzia sartu du Albizturko Udalean; bertan, txakurren aisialdirako guneen beharraz eta Ospital Zahar pareko garbitegiaren egoera txarraz dihardu.

Gaia aztertu ondoren, Etarteko belardia txakurren aisialdirako egokia izan daitekeela erabaki da. Baina gaur egun txakur gorozkiz beteta egoten denez, jabeei jasotzea eskatuko zaie eta arau hauste larria izango txakur gorozkiak bertan uztea.

Ospital Zahar pareko garbitegiaren egoera ez da hain txarra hautetsien ustez, baina hala ere langile balioanitzdunari abuztuan garbitzeko eskatuko zaio.

Gaia landu ondoren Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Etarteko balardia txakurren aisialdirako egokitzea eta bando baten bidez berria zabaltzea.

Bigarrena.- Langile balioanitzdunari abuztuan Ospital Zahar pareko garbitegia garbitzeko eskatzea.

Hirugarrena.- Iraitz Ezeiza Barandiarani hartutako erabakien berri ematea.

6. ARROBIKO LEHERKETAK

Erdigunea 48, 49 eta 51 etxebizitzetako bizilagunek eskabidea sartu zuten Albizturko Udalean, beraien etxeetako fatxada eta terrazetan kalteak zituztela, eta harrobia gertu edukitzeak eta azkenaldian jasandako gehiegizko eztandek zerikusia zutenaren ustea adieraziz.

Albizturko Udalak harrobiko arduradunekin bilera egin zuen gai hau lantzeko; bertan eztanda guztiak herriko 3 gune desberdinetan neurtzen dituztela adierazi ziiguten, eta guztien intentsitatea legeak onartzen duen gehienezko mugatik oso behera dagoela. Hala ere, prest daudela bizilagunekin biltzeko eta eztandak beraien etxe inguruan neurtzeko.

Osoko bilkurara eskabidea sartu zuten bizilagunetako bat bertaratu da, eta harrobiko arduradunekin izandako bileraren berri eman diogu.

Gainontzeko bizilagunekin hitz egitekotan geratu da, baina eztandak etxe ondoan neurtu eta harrobiko arduradunekin biltzeko prest agertu da.

7. ESTRAESKOLARREN ITZULKETA

Martxotik ekaina bitarte pelota, dantza eta pala ikastaroak eten egin zirenez Covid-19aren ondorioz, eta kuota ikasturteka kobratzen denez, 2019/2020 ikasturteari dagokion heren bat itzultzea erabaki da.

Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2019/2020 ikasturteari dagokion heren bat itzultzea.

Bigarrena.- Interesatuei honen berri ematea.

8. GARRO BASERRIA

Garro baserriko jabeak ur hornidura eskaera egin dio Albizturko Udalari.

Momentu honetan Garro baserri guztia agropekuario gisa dago, eta ez du IBI-hirilurra zerga ordaintzen.

Orain arte izan diren mota honetako eskaerei, baserriaren portzentaia bat etxebizitza moduan jartzeko eskatu zaie, eta Garro baserriaren kasuan ere berdin jokatzea adostu da.

Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Garro baserriari ur hornidura ematea.

Bigarrena.- IBI-hirulur zergako ondasun higiezinetan 60 m2 etxebizitza moduan alta emateko eskatzea.

Hirugarrena.- Interesatuei honen berri ematea.

9. GALTZAUNDIREN ESKAERA

Galtzaundi Euskara Taldeak 2020ko Egitasmoa aurkeztu du Albizturko Udalean: Bertan, besteak beste, lankidetza proposamena jasotzen da, 2020ko Euskaraldiaren berri ematen da, herritarrei euskara ikastaroak eskaintzen dira eta Albizturko Udalari 630 €-ko dirulaguntza eskatzen zio.

Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Galtzaundi Euskara Taldearen lankidetza proposamena onartzea.

Bigarrena.- Galtzaundi Euskara Taldeari 630 €-ko dirulaguntza ematea.

Hirugarrena.- Herritarrei Euskara Ikastaroen informazioa zabaltzea.

Laugarrena.- Galtzaundi Euskara Taldeari honen berri ematea.

10. ORAIN ARDURA MOZIOA

Osoko Bilkurak Orain Ardura mozioa ez babestea erabaki du.

11. GALDERA ERREGUAK

- Jose Inazioren ordezkoari kontratua luzatzeko aukera: Abuztua momentu egokia da Albziturren egiteke dauden hainbat mantenimendu lan egiteko, eta Jose Inazio oporretatik itzultzen denean, berarekin adostuko da zer lan dauden egiteko eta bigarren langile balioanitzduna zenbat denboraz kontratatuko den.

Osoko bilkura, 21:30tan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

Albizturren, 2020ko abuztuaren 6an

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)

Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 12:54:55 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J

Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:12:20 +02'00'